

(1552)





## 1.1 1552. URTEA

### 1.1.1. Sebastian Olanoren obligazio-agiria eta Gabriel Artzubiagaren ahalordea

- 1552-I-22an, Tunis ondoko Goleta herriko gotorlekuan, Bartolome Salamanca eskribauaren aurrean hauek agertu ziren: batetik, Domingo Madariaga, Antonio Guineo eta Joan Algarain, eta, bestetik, Azkoitiko Joan Martinez Olanokoaren seme Sebastian Olano.

Sebastianek beste hirurei obligazio-agiria eman zien, premian laguntza gisa maileguz eman zizkieten 25 ezkutu ordaintzeko konpromisoa hartuz.

Lekuko hauek izan ziren: Diego Altamirano, Martin Sustaeta eta Anelo Sisteo (ikus [\[XVI. m. \(52-I\) 1\]](#) agiria).

- 1552-XII-13an, Zestoan, Domingo Amilibia eskribauaren aurrean Gabriel Artzubiaga aurkeztu zen. Ahalordea eman zien zestoar hauei: Martin Perez Artzubiagakoari, Grazian Ezenarriori, Martin Lizarraratsi, Pedro Altzolaratsi, Esteban Eztiolari eta beste bati. Ahalordea eman zien, halaber, Donostiako Jofre Ibañez Igartzakoari eta Domingo Iraetari.

Gabriel Artzubiagak auzia zuen Zumaiako Kontzejuarekin Valladolidko Kantzelaritzan, eta ahalordea zutenek ordezkaturiko zuten.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: San Joan Idiakaitz batxilerra, Joan Lizarrarats eta Joan Etorraetxea (ikus [\[XVI. m. \(52-XII\) 2\]](#) agiria).

### 1.1.2. Sevillako Domingo Lizarrarats eta Indietako merkataritza

- 1552-III-4an, Sevillan, Pedro Gutierrez de Padilla eskribauaren langelan hauek agertu ziren: batetik Sevillan bankari zen Domingo Lizarrarats zestoarra eta Domingo Igurrola gipuzkoarra, eta, bestetik, Sebastian Igurrola ontzi-maisu.

Domingo Lizarrarats Sevillako Santa Maria auzoan bizi zen, eta Domingo Igurrolarekin batera *Santa Katalina* galeoiaren jabe zen. Galeoia Sevillako Guadalquivir ibaian Muelas-ko portuan prest zegoen Indietako Nombre de Dios hirira (Panamara) joan-etorria egiteko.

Ontzi-jabeek ahalordea eman zioten Sebastian Igurrola ontzi-maisu gipuzkoarrari (eta hau ezean edo hiltzen bazen, Andres Ibiaca? eskribauari eta Joan Laguras? gipuzkoarrari).

Ahalordea zutenek ahalmena zuten pleitamendu-kontratuak egiteko eta kobratzeko, galeoia bere aparailu eta tresneriarekin saltzeko, auzitara jotzeko, ordainagiriak emateko, hipotekatzeko eta abarretarako.

Ahalordean lekuko hauek izan ziren: Pedro Porras eta Alonso Rodriguez eskribau sevillarrak (ikus [\[XVI. m. \(52-III\) 1\]](#) agiria).

Domingo Lizarraratsen eta Domingo Egurolak Sevillan zuten bankuaren hartzekodunek eta errege-fiskalak auzia zuten.

- 1552-X-4an, Sevillan, armadako almirante-itsasontzian Indietako Panama aldera garraiatutako artilleria, janari, edari, tresneria eta upeletan kargaturiko gainerako gaien zerrenda egin zuten. Sevillako Kontratazio Etxean egin zuten zerrenda.

Bidaiatik itzultitakoan gai haiek guztiak esandako prezioan Sevillan Sebastian Igurrola ontzi-maisuari ordainduko zizkieten (ikus [\[XVI. m. \(52-X\) 1\]](#) agiria).

### 1.1.3. Grazian Artzubiagak eta Maria Fernandez Leizaolakoak sortutako zentsua

- 1552-V-8an, Deban, Mutrikuko Domingo Ibañez Larangakoa eskribauaren aurrean hauek agertu ziren: batetik, Debako Grazian Artzubiaga, Maria Migelez



1.1. irudia.  
Astigarribiko San  
Andres.

Larrinagakoa emaztea, Maria Fernandez Astigarribikoa amaginarreba eta Astigarribia beheko dorretxe-ko Joan Lopez Astigarribikoa (Andres Lopez Astigarribikoaren seme mutrikuarra), eta, bestetik, Debako Maria Fernandez Leizaolakoa alarguna.

Maria Fernandez Leizaolakoak 50 dukat eman zizkien besteei, eta bi aldeek betiko zentsua sortu zuten. Beraz, Grazianen aldeak Maria Fernandez Leizaolakoari Deban zuen etxean urtero 3,5 dukateko (% 7ko) errenta edo zentsua ordainduko zion. Lehen ordainketa 1553-V-8an egingo zioten.

Horretarako Grazianen aldeak ondasun hauek hipotekatu egin zituen:

- Debako ontzioletako errebaleari zuten etxea. Mugakide zituen Joan Matusinen etxeak eta kalea.

- Debako Ansaondoko lurrak. Mugakide zituen Maria Joan Zabala, Sebastian Bergara eta Joan Aldakoren lurrak.

- Joan Lopez Astigarribikoak Astigarribi azpian zituen soro, belardi, larre, gaztainadi eta sagastiak. Mugakide zituen Aparizio Astigarribiaren oinordekoen lurrak, errepeidea eta Deba ibaia.

- Gorio? baserria, bere baso, ganadu, soro, belardi, gaztainadi, intxaurdi eta abarrekin. Mugakide zituen Aparizio Astigarribiaren lurrak, errepeidea eta Mutrikuko herri-lurrak.

Ondasun haiek guztiak lehendik zorpetu gabe zeuden, eta sortutako betiko zentsurako hipotekatuta geratu ziren. Zentsu eta errenta hartan bi aldeek eta hauen oinordekoek zein baldintza bete behar zituzten ere zehaztu zuten.

Maria Migelez Larrinagakoak, emakume ezkondua zelako, zin egin zuen zentsua sortzeko kontratuak zioena bete egingo zuela.

Agirian lekuko honako hauek izan ziren: Debako Domingo Olano, Joan Arantzibia eta Mutrikuko Joan Iturritza (Aparizio Iturritzaren semea) (ikus [\[XVI. m. \(52-V\) 1\]](#) agiria).

#### **1.1.4. Pedro Ortiz Zarauzkoak Maria Bikuñarekin sortutako zentsua**

- 1552-VI-4an, Saiazko Aia unibertsitateko Aiagoitian, Zestoako Domingo Amilibia eskribauaren aurrean, hauek agertu ziren: batetik Pedro Ortiz Ganboakoa (Zarautz etxeko jauna eta Joan Ortiz Gan-

1.2. irudia. Aiako Altxerri baserria.



boakoaren seme eta oinordekoa), eta, bestetik, Azpeitiko Maria Bikuña (Joan Alzagaren alarguna).

Joan Ortiz zenak Mariari 500 dukateko zorra utzi zion, eta Pedro Ortiz semeak zor haren gainean betiko zentsua sortu zuen Maria Bikuñarekin. Pedrok edo ondorengoek urtero ekaineko San Joan egunean 35 dukat (% 7) ordainduko zizkieten Mariari edo honen ondorengoei. Ordainketa hura segurtatzeko, Pedro Ortizek Oikiako Igartzan zituen etxe, baserri, burdinola, errota, lur eta gainerako ondasunak hipotekatu egin zituen. 1553. urteko San Joan egunean izango zen lehen ordainketa.

Pedro Ortizek edo ondorengoek Maria Bikuñari edo ondorengoei zentsua berrerosi eta baliorik gabe utzi ahal izango zuten, 500 dukat ordainduta. Zentsuaren erdia ere berrerosi ahal izango zuten 250 dukat ordainduta.

Pedro Ortizek (edo ondorengoak) 35 dukat ordaintzen ez bazituen, Mariak (edo ondorengoak) eskubidea izango zuen Pedroren ondasunak exekutatzeko edo zorra maizterren errentetatik kobratzeko.

Pedro Ortiz Ganboakoak edo ondorengoek Igarzako ondasunak saldu nahi bazituzten, Mariari eta ondorengoei 9 egun lehenago jakinarazi egingo zie-

ten, hauek erosteko lehentasuna izango luketelako.

35 dukateko zentsu hura bermatzeko beste zenbait baldintza ere ezarri zuten kontratu hartan.

Agirian lekuko hauek izan ziren: Aiako erretoare Ortuño Zarautz, Aiako Pedro Arruti apaiza eta Zarauzko Ortuño Ganboa (ikus [\[XVI. m. \(52-VI\) 2\]](#) agiria).

### **1.1.5. Iñigo Goiatz, Pedro Martinez Zabalakoa eta Joan Armendiaren arteko tratuak**

- 1552-VII-12an, Zestoan, Lili etxean, Domingo Amilibia eskribauaren aurrean Azpeitiko Iñigo Goiatz aurkeztu zen.

Iñigori Arroako Joan Armendiak eta Aizarnazabalgo Joan Aizarnazabal fidatzaileak 100 kintal burdina (bi “ertz” pisuko pletinatan) zor zizkieten, Azpeitiko Joan Akemendi eskribauaren aurrean 1551-III-lean egindako obligazio-agiriaren arabera. Zor hura, ordea, Bergarako Pedro Martinez Zabalakoa merkataria ordaindu zion Iñigori.

Beraz, Iñigo Goiatzek Pedro Martinezi ordainagiria eta eskubidea eman zizkion, Pedrok zorra beste bi zordunei kobra ziezaien.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Perez Lilikoa, Lazaro Idiakaitz eta Asentzio izeneko bat (ikus [\[XVI. m. \(52-VII\) 1\]](#) agiria).

Egun eta leku berean, hau da, 1552-VII-12an, Liliko Intxaurdian, Domingo Amilibia eskribauaren aurrean, Pedro Martinez Zabalakoa merkatari bergararrak ahalordea eman zion Joan Perez Lilikoari.

Joan Armendiak eta bere fidatzaile Joan Aizarnazabalek 100 kintal burdinako zorra egin zioten Azpeitiko Iñigo Goiatzi, baina Pedrok ordaindu zion zor hura Iñigori. Beraz, Pedrok zituen zor hura Joan Armendiari eta fidatzaileari kobratzeko eskubideak.

Hain zuzen, ahalordeaz Joan Perez Lilikoa arduratuko zen zor hura Joan Armendiari Pedro Martinezentzat kobratzen.

Lekuko honako hauek izan ziren: Joanes Garratza apaiza, Bartolome izeneko apaiza eta Nikolas Martinez Egiakoa (ikus [\[XVI. m. \(52-VII\) 2\]](#) agiria).

- 1552-IX-5ean, Arroan, Domingo Amilibia eskribauaren aurrean, hauek elkartu ziren: batetik, Arroako Domingo Armendia eta Joan Armendia, Aizarnaza-

balgo Joan Aizarnazabal (Joan Armendiaren suhia) eta Zestoako Nikolas Martinez Egiakoa (Iraketako jauna), eta, bestetik, Bergarako Pedro Martinez Zabalakoa merkataria.

Pedro Martinezek beste laurek Azpeitiko Iñigo Goiatzi egindako 100 kintal burdinako zorra ordaindu egin zion Iñigori, eta, horren ondorioz, aipaturiko laurrek obligazio-agiria eman zioten Pedrori, hil hartako San Migel egunean, Beduako errenterian, 100 kintal burdina ordaintzeko konpromisoa hartuz.

Lekuko hauek izan ziren: Zestoako Joanes Garratza apaiza, Domingo Ernataritz eta Lope Fernandez Lukikoa (Nikolas Martinezen morroia) (ikus [\[XVI. m. \(52-IX\) 1\]](#) agiria).

Egun eta leku berean, hau da, 1552-IX-5ean, Arroan, Domingo Amilibia eskribauaren aurrean, Arroako Armendiko jabe Joan Armendiak konpromiso-agiria egin zuen. Berez Iñigo Goiatzi (edo Pedro Martinez Zabalakoari) egindako 100 kintal burdinako zorra Joan Armendiarena baino ez zen. Beraz, obligazio-agirian zordun agertzen ziren Domingo Armendia, Joan Aizarnazabal eta Nikolas Martinez Egiakoa obligazio hartatik onik ateratzeko konpromisoa hartu zuen Joan Armendiak.



---

1.3. irudia. Arroako Armendi.

Lekuko honako hauek izan ziren: Joanes Garratza apaiza, Lope Ernataritz eta Lope Fernandez Lukikoa (Nikolas Martinezen morroia) (ikus [\[XVI. m. \(52-IX\) 2\]](#) agiria).

### 1.1.6. Maria Akertza adingabearen tutoretzari buruzko auzia

Esteban Akertza merkatari zestoar aberatsa 1547an testamentua egin gabe hil zen, eta alaba Maria Akertza adingabea zen oinordeko unibertsal bakarra.

Maria Akertzaren tutoretza lortu nahian, 1552. urtean, bi talde auzitan zebiltzan. Alde bat hauek osatzen zuten: Arroako Martin Akertzak (Estebanen lehengusu propioak), Katalina Akertzak (Pedro Akoaren emazteak), Maria Otxoa Akertzakoa alargunak eta Zestoako elizako Ana Akertza serorak.

Beste aldea osatzen zutenak hauek ziren: Zumaiako Andres Martinez Mallekoa eta Marina Loiola (Estebanen alarguna, Mariaren ama eta bigarrenez Andres Martinezekin ezkondua), eta Azpeitiko Martin Gartzia Loiolakoa.

- 1552-VII-8an, Tolosan, Joan Vargas korrejidoarek Martin Akertza tutore izendatu zuen, Esteban Akertzak Mariarentzat Gipuzkoan utzitako ondasune-

tarako, eta Andres Martinez Malleakoa Estebanek Gipuzkoatik kanpo utzitako ondasunetarako (ikus [\[XVI. m. \(51-IX\) 23\]](#) agiria)

Bi aldeek gora jo zuten epaiaren aurka, eta auzia Valladolidko Kantzelaritzara heldu zen. Martin Akertzaren aldeak, Joan Angulo prokuradorearen bidez, Maria Akertzaren ondasun guztien (eta ez bakarrik Gipuzkoakoen) tutore Martin izendatzea eskatu zuen, bere aldeko arrazoiak azalduz.

Martin Akertza Esteban zenaren lehengusu zen, pertsona egokia, zintzoa eta ondasunak zituen. Andres Martinez Malleakoa, berriz, merkataria zen, eta zenbait alditan diru-kopuru handiak galdu zituen.

Andres Martinez Malleakoa Marina Loiola alargunarekin (Maria Akertzaren amarekin) ezkondu zenean, kontratuko baldintzetako bat Andres Maria adingabearen tutore izatea omen zen. Zuzenbidez onartu ezinezko baldintza omen zen hura.

Martin Akertza prest zegoen tutoretzan hasi aurretik behar ziren fidantza guztiak emateko.

Andres Martinez Malleakoaren aldeak, Joan Otxoa Urkizukoa prokuradorearen bidez, bere aldeko arrazoiak

1.4. irudia. Valladolidko Plaza Nagusia.





1.5. irudia. Getaria. Elkanoren monumentua.

adierazi zituen. Maria Akertza adingabea Joan Martinez Ganboakoak eta emazte Grazia Artazubiagak zeukaten eta haren heziketaz arduratzen ziren, egoki arduratu ere. Komeni omen zen haiek lan hartan jarraitzea.

Bestalde, Esteban Akertzak bere ondasunak Gipuzkoan ez-ezik, Indietako Hondurasen, Sizilian eta abarren utzi zituen, eta Andres Martinezek leku haieran faktoreak eta merkatal sarea zituen. Beraz, tutoretza osoa Andresi ematea zen onena.

- 1552-XII-20an, Valladoliden, Kantzelaritzako epaileek beren epaia eman zuten.

Gipuzkoako korrejidoreak emandako epaia zuzena zen Martin Akertza Mariaren eta Gipuzkoako ondasunen tutore izateaz, baina horrez gain Gipuzkoatik kanpo beste edonon zituen ondasunen tutore ere izendatu zuten Martin.

Suarez de Toledo, Pedro Gasco eta Vazquez dokto-rea izan ziren epaileak.

Andres Martinez Malleakoaren aldeak Valladolid-ko Kantzelaritzan bertan epaiari aurka egin zion, eta berrikuspen mailan jarraitu zuen auziak.

Auzi horretatik at, hurrengo urteetako diru-kontuetan Martin Akertzak 1552. urtean kudeatu beharreko zenbait diru-kopururen adierazpenak agertzen dira: Pedro Santxez Benesakoak Zabaletako ondasunen bermeaz ordaindu beharreko zentsua, adibidez (ikus [\[XVI. m. \(52-XII\) 3\]](#) agiria).

### 1.1.7. Joan Alos Amilibikoa, Maria Otxoa Akertzakoa eta Diego Idiakaitzen agiriak

- 1542-IX-8an, Deban, Joan Alos Amilibikoak testamentua egin zuen Sebastian Arriola eskribauaren bidez (ikus ZESTOAREN HISTORIA (1) CDko [\[XVI. m. \(42-IX\) 6\]](#) agiria).

- 1552-VIII-25ean, Getarian, Debako eta Getariako auzotar zen Bartolome Alos Amilibikoaren Gartzia Perez Gaintzakoa prokuradorea agertu zen Domingo Errekabarren alkatearen eta Domingo Otxoa Portukoa eskribauaren aurrean.

Joan Alos Amilibikoaren testamentuaren kopia behar zuen Bartolomek, eta prokuradoreak eskea egin zion Getariako alkateari. Honek testamentu originala aztertu ondoren, bere aginpidea erabiliz agindua eman zion Domingo Otxoari bi kopia atera zituzan: bata eskribauarentzat eta bestea Bartolomerentzat.

Agirian lekuko getariar hauek izan ziren: Joan Isasti eta Antonio Portukoa (ikus [\[XVI. m. \(52-VIII\) 1\]](#) agiria).

- 1547-I-15ean, Zestoan, bertako alkateak Blas Artazubiaga eskribauaren aurrean Maria Otxoa Akertzakoa izendatu zuen Frantzisko Olazabal senar zena-ekin izan zituen seme adingabeen tutore (ikus [\[XVI. \(47-I\) 19\]](#) agiria).

- 1552-VII-30ean Maria Otxoa Akertzakoa eta Zumaiako Pedro Dorrekoa auzitan zebiltzan, eta Pedro Dorrekoak eskea egin zion Gipuzkoako Joan Vargas korrejidorearen ordezkari Pedro Alegria lizentziatuari.

Tutoretza-agiriaren zati batek zioenaren kopia nahi zuen Pedro Dorrekoak, eta korrejidoreordeak agindua eman zion egun hartan Tolosan Zestoako Blas Artazubiagari, hiru eguneko epean kopia atera zezan.

- 1552-IX-3an, Zestoako errebelean, Esteban Eztiolak aginduaren berri eman zion Blas Artazubiagari. Blasek zioenez, agiria aurkitu eta, esan bezala, kopia aterako zion Pedro Dorrekoari, bere soldata kobratuz. Lekuko Joan Fernandez Arreitzakoa eta beste herritar batzuk izan ziren.

Egun berean, Zestoako hiribilduan, Esteban Eztiola eskribauak Maria Otxoa Akertzakoari jakinarazi zion korrejidoreordearen aginduak zioena. Joan Fernandez Olazabalgoa eta Grazian Ezenarro zestoarrak izan ziren lekuko (ikus [\[XVI. m. \(52-VIII\) 2\]](#) agiria).

San Joan Perez Idiakaizkoa lizentziatu zenak eta emazte Maria Perez Arronakoak (edo Altzolaraskoak) 1542-X-9an Zarauzko Beltran Mendia eskribauaren aurrean Altzolarats jauregiko ondasunekin maiorazkoa sortu zuten.

Gero, 1547-V-11n, Aiako Barerainen, Maria Perez Arronakoak onetsi eta berretsi egin zuen maiorazkoa sortzeko agiria (ikus [\[XVI. m. \(47-III\) 12\]](#) agiria).

- 1552-XII-3an, Aiako Barerainen, San Joan Perez-en eta Ana Perez-en seme Diego Idiakaitz agertu zen, Beltran Mendia eskribauaren aurrean. Bera zen Urdaneta elizako erretorea, eta onetsi eta berretsi egin zuen maiorazkoa sortzeko gurasoek egin zuten agiria. Berari eta beste anai-arrebei senipartekoak ordaintzeko maiorazkotik kanpo ba omen zuten behar adina ondasun.

Diego Idiakaitzek zin egin zuen agiri hartan agindutakoa bete egingo zuela. Agiriak zioenari aurka egiten bazion, 500 dukateko isuna ordaindu beharko zuen.

Lekuko hauek izan ziren: Joan Urdaneta, Migel Legarrola eta Joanes Olaso (Zarauzko eta Aiako biztanleak) (ikus [\[XVI. m. \(52-XII\) 1\]](#) agiria).

### **1.1.8. Arroako eliza berritzeko Domingo Arretxe-Etxenagusiarekin egindako kontratua**

- 1552-III-20an, Arroako San Esteban elizan, Zestoako Esteban Eztiola eskribauaren aurrean bertako eliztarrak bildu ziren.

Bertan ziren honako hauek: Joan Sorazu betiko bikarioa, Joan Perez Areitzagakoa eta Joan Oliden elizako administratzaileak, Nikolas Martinez Egiakoa (Iraetako jauna), Anton Olea, Martiz Luberriaga, Joan Artzubiaga, Ramos Amilibia, Menjon Agote, Hernando Artzubiaga, Joan Otalora, Joan Igartza, Joan Martinez Usarragakoa, Beltran Ermua, Joan Etxenagusia, Joan Areitzaga, San Joan Agote, Hernando Sorazabal, Joan Oliden (Akertzakoa), Domingo Arretxe-Etxenagusia, Grazian Leizaola, Joanes Alegria, Domingo Ariztondo, Martin Diaz Ermukoa, Joan Larretxe, Andres Errementari, Domingo Areitzaga, Joan Domingez Areitzagakoa, San Joan Arbe (Larretzekoa), Joan Anton Ermua, Domingo Armendia, Ramos Edarritzaga, Petri Baztandegi, Pedro Leitza, Joan Uzkania, Joan Olea, Domingo Narruondo, Martin Arbestain, Martin Ibarrola, Domingo Amilibia hargina, Martin Erandio, Petri Bastida, Frantzisko Epelola, Domingo Areitzaga (Joan Domingez anai), Esteban Luberriaga eta Joan Agote.

Haiekin batera beste hainbat emakume alargun, ezkondu eta ezkongabe ere bertan ziren.

Elizkizunaren ondoren aipatu zutenek, denak ados zeuden beren eliza harri onez eraikitzeko, bertan kaperak egiteko eta orduan harri txarrez egin eta erortzeko zeuden hormak berritzeko. Horretarako kontratua egin zuten bertako eliztar Domingo Arretxe-Etxenagusia hargin-maisuarekin.

Domingok Arroako elizan hiru horma beren ostikoekin eraikiko zituen, lehen kaperaraino eta kape-



1.6. irudia. Arroako bista.

ratxoraino. Eliztarrek aukeratutako hargin-maisuak egindako planoen arabera egingo zituen. Hamabost eguneko epean emango zizkieten planoak.

Domingo Arretxe-Etxenagusiak bere lanak hurrengo Pazko garizumakotik lau urtera amaituko zituen. Hormak harri, kare eta material onez eraikiko zituen, eta harri-hormak gero harginek ikertuko zituzten.

Eliztarrek ekarri eta emango zizkieten Domingori kararriak eta Getariako Garateko hareharriak. Eliztarrek emango zizkieten habeak, aldamiotarako zurak, oholak, iltzeak, sokak, etab.

Hormak eraiki ahala, Domingori egindakoaren bi heren ordaindu egingo zizkieten, eta beste herena hurrengo lau urteetan zehar.

Domingo Arretxe-Etxenagusia hargin-maisua lanak amaitu baino lehen hiltzen bazen bete beharreko baldintzak ere zehaztu zituzten.

Lanak amaitu ondoren, bi hilabeteko epean ikerlariek balioetsi egingo zituzten.

Joan Sorazu bikarioak entzule guztiei eman zien kontratu osoaren berri, eta denek onartu zuten. Iruñeko

apezpikuari eta bere ofizialei baimena eskatuko zieten lan haiek egin zitzaten. Horretarako ahalordea eman zieten Joan Sorazu bikarioari eta bi administratzaileei.

Kontratu hartan lekuko hauek izan ziren: Debako Joan Zigarán eta Gartzia Arteaga eta Zestoako Martin Artazubiaga. Agiria sinatutakoak hauek ziren: Joan Sorazu, Nikolas Martinez Egiakoa, Joan Zigarán eta Joan Etxenagusia (ikus [\[XVI. m. \(52-III\) 2\]](#) agiria).

### 1.1.9. Zestoako eliza handitzeko errege-erreginei egindako baimen eskea

- 1552-VI-4an, Madrildik errege-agindua bidali zioten Gipuzkoako korrejidoreari.

Lehenago, Zestoako Kontzejuaren izenean, Antonio Lizarrarats bikarioak eskea egin zien. 1549. urtean Zestoako hiribildua eta eliza erre egin ziren. Ozta-ozta izan zuten elizatik Jauna ateratzeko denbora.

Herriak biztanle gehiago zituelako, eliza berria zabalagoa eta luzeagoa eraiki nahi zuten. Horretarako ondoko etxe batzuk, soroak, baratzeak, etab. erosi behar ziren, eta hura guztia egiteko baimena eskatu zuten.

Errege-kontseilukoek agindua bidali zioten Gi-

puzkoako korrejidoreari, gaia azter zezan eta kalte txikiagoa eginda eliza eraikitzerik zegoen ala ez ikus zezan. Korrejidoreak, informazioa jaso eta azterketa egin ondoren, bere iritzia idatzi eta zigilatuta bidaliko zien. Pedro Marmol ganbara-eskribauak idatzi zuen agiria (ikus [\[XVI. m. \(52-VI\) 1\]](#) agiria).

### 1.1.10. Pedro Arretxe Aizarnako elizako erreto

- 1552-X-4an, Aizarnako elizan, Esteban Eztiola eskribaua bertan izanik, eliztarrak mezetan zirela, opalkuntza garaian Pedro Arretxe apaiz lizentziatuak eskea egin zion Domingo Urbietta apaizari.

Pedrok, Iruñeko apezpikuaren bikario nagusiak emandako agindua zuen. Agiri hartan Pedro Arretxeri Aizarnako elizako erreto kargua eman zion. Beraz, Domingo Urbietak elizako sagrarioaren giltzak eman zizkion, eta meza-liburua ere bai.

Pedro Arretxek bere gain hartu zuen elizako erreto-toretza. Aitzeko Santa Engraziako ermita ere bere ardurapean geratu zen.

Lekuko zestoar hauek izan ziren: Joan Igartza, Bartolome Etxabe, Martin Ezenarro, Domingo Garratza, eta beste hainbat (ikus [\[XVI. m. \(52-X\) 2\]](#) agiria).

### 1.1.11. Gipuzkoako Batzarrak, etab.

1552. urtean Gipuzkoako lehen Batzar Nagusiak Elgoibarren ospatu ziren, apirilaren 30etik maiatzaren 9a bitartean. Bertan Zestoako Kontzejuaren ordezkari Gabriel Artzubiaga izan zen.

Gipuzkoako Probintziara kapare ez zen atzerritar asko etorri omen zen, eta bertakoen kaparetasuna zailantzan jar ez zezaten, gai hartan Zestoako ordenantzak betearaztea agindu zuten.

Zestoako ordezkariak bertako Kontzejuak herri-lurretan 500 haritz eta gaztainondo aldatu zituela jakinarazi zuen.



1.7. irudia. Zestoako eliza.

Zestoako Domingo Amilibiak batzarkideei jakinarazi zenez, Probintziako merio nagusiarekin, Bilbon eta Lau Hiribilduetan preso zeuden frantziarrak biltzen ibili zen, gero haien truke Frantzian preso zeuden gipuzkoarrak askatzeko.

Zestoako prokuradoreak eskatuta, Batzarrak agindua eman zion Debako Kontzejuari, Lilitik Ibañarrietako bidea konpon zezan.

Ibañarrietako bidean eta Arroaerrekian zubia konpontzen egindako gastuak herritarrei kobratzeko baimena lortu zuen Debako Kontzejuak.

Probintziaren hurrengo Batzar Nagusiak Deban ospatu ziren, azaroaren 14tik 24ra bitartean. Zestoako Kontzejuaren prokuradore Esteban Eztiola izan zen.



1.8. irudia. Debako udaletxea.

Bertan izan ziren Debako Martin Artzuriaga ermandade-alkatea eta Zestoako Joan Amilibia ermandade-alkatea.

Zestoako ordezkariak eskea egin zuen Debako Kontzejuak Lilitik Ibañarrietako bidea konpon zezan. Zarauzko ordezkariak berriz, Urbietako zubitik Zestoako hiribildurainoko bidea egitea eskatu zuen, eta Zestoakoak Arroako Zubeltzutik Arroakolako presarainokoa egitea.

Arroerrekan zubia egitea komeni zen Ibañarrieta aldean, eta zubiaren gastuak erdi bana ordainduko

zituzten Debako eta Zestoako Kontzejuak. Zubia hurrengo Batzarretarako eraikita egongo zen.

Debako ordezkariak adierazi zuenez, Probintzian irakurtzen eta idazten ez zekien alkate asko zegoen, eta Probintziari eskea egin zion irakurtzen eta idazten ez zekitenak alkate izan ez zitezten. Gai horretaz ordenantza egin eta errege-erreginei onespena eskatu behar zitzairen.

Azeria eta Saiazko prokuradoreak aurka atera ziren, eta Oiartzungoa ere bai, irakurtzen eta idazten ez zekiten eta pertsona zintzo ziren asko zeudelako. Batzarrak gaia aztertu eta ordenantzaren onspena lortzen saiatzea erabaki zuen, lehendik ordenantza ez zeukaten Kontzejuetan.

Zestoa, Azpeitia eta Azkoitiko prokuradoreek beren lurretako olagizonek errege-erreginen mertzenarioek burdinoletan kobratzen zituzten zergei buruz zeukaten auziaren berri eman zuten.<sup>1</sup>

Bestalde, Zestoako San Joan Etorra ontzi-maisuak, aurreko urtean bezala, bere itsasontzian Indietara joan-etorriko bidaiak egin zituen.<sup>2</sup>

Azpeitian 1552. urtean Probintziak ordenantza egin zuen, eta bertan agintzen zenez, alkate kargua eskuratzeko, auzotar eta kaparea izateaz gain, zerga-ordaintzaile “osoa” izan benar zen.<sup>3</sup>

Nafarroan, berriz, 1552. urtean, Zufian (Lizarrako merindadean) ezkontza bati buruzko auzia zegoen, eta bertan ezkontza-hitzak euskaraz esan zirela zehazten da.<sup>4</sup>

Urte berean hil zen Txinako Sanzian-en, Kantonen aurrean San Frantzisko Xabier nafarra.<sup>5</sup>

## 1.2. LEHEN KAPITULUKO OHARRAK

---

<sup>1</sup> DIEZ DE SALAZAR FERNANDEZ, L. M. eta AIERBE IRIBAR, R. M. Juntas y Diputaciones de Gipuzkoa (1550-1553). I. alea. Donostia, 1990. (251, 263, 264, 271 272, 276, 299, 320, 347-349, 354, 365. or.).

<sup>2</sup> BERMUDEZ PLATA, C. Catálogo de pasajeros a Indias durante los siglos XVI, XVII y XVIII. III. alea (1539-1559). Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Patronato Menéndez y Pelayo. Instituto Gonzalo Fernández de Oviedo. Sevilla, 1946. (527. or.)

<sup>3</sup> GARCIA FERNANDEZ, E. “*Para la buena gobernación e regimiento de la villa e sus veçinos e pueblo e republica*”: de los fueros a las ordenanzas minicipales en la provincia de Guipúzcoa (siglos XII-XVI), in El triunfo de las elites guipuzcoanas: nuevos textos para el estudio del gobierno de las villas y de la Provincia (1412-1539). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia, 2002. (51. or.).

<sup>4</sup> SALES TIRAPU, J. L. eta URSUA IRIGOIEN, I. Catálogo del Archivo Diocesano de Pamplona. Sección Procesos. Tomo I. 1559-1589. 945 Zufia. 1552. Iruñea, 1988. (269. or.).

<sup>5</sup> BILBAO, L. M. “*Austriarrak: bizitza materiala*”, in Euskaldunak Historian barrena. Jokabideak, pentsamoldeak eta eguneroko bizitza. Gipuzkoako Aurrezko Kutxa. Donostia, 1989. (167. or.).

